



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunerako
Euskal Fundazioa



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK

ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria

Kutsadura iturrien sailkapena


Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

2025ko BIGARREN LAUHILEKOA

1


JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2025ko bigarren lauhilekoan elikagaiei buruzko **1578** jakinarazpen izan dira. Horietatik **492 alertak izan dira (%31)**, **660 informazio-jakinarazpenak (%42)** eta **426 mugan egin diren ukapenak (%27)**.



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **22,5a** **INDIAkoak** eta % **22a** **TURKIAkoak**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **POLONIA** izan da, % **13,5**arekin, bigarren **FRANTZIA** izan delarik % **11,5**arekin. **Afrikaren** kasuan, **EGIPTOK**, jakinarazpenen %**26** izan ditu eta **Amerikaren** kasuan **EEBB %35**arekin dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2025ko bigarren lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1578 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Kutsadura biologikoa	% 21,5
Iruzurrak	% 20
Hondakinak	% 17,5
Toxiko naturalak	% 17,5
Kutsadura kimikoa	% 9,5
Higiene-egoera txarra	% 5
Kutsadura fisikoa	% 4,5
Metal astunak	% 4
Arrisku nutrizionalak	% 0,5



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Toxiko naturalek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 63an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % 40a eragin du. Kasu gehienetan, % 44,5ean, kakahuetea **ARGENTINA**tik zetorren. **PISTATXOA** azaltzen da bigarren postuan, %23,5arekin. Kasu honetan, **TURKIA** jatorriarekin %39an.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %62a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 81ean. **OILASKOA** izan da produktu protagonista %28,5ko kasuetan, %45eko kasuetan **POLONIA** jatorria zelarrik. Beste salmonelei dagokienez, %13a *Salmonella enteritidis* dagokio. **OILASKOAK** eragin ditu kasuen % 82a eta % 69,5eko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria eta % 6a *Salmonella typhimuriumi*, eta kasu honetan ere **OILASKOA** protagonista delarik (%42a).

Kutsadura biologikoein jarraituz, *Listeria monocytogenes* bakteriak jakinarazpenen %19a eragin ditu, **GAZTA mota desberdinak** %21,5an inplikatura egonda, **FRANTZIA** jatorrikoa %43ean..

Fitosanitarioen eta sendagaien hondakinei dagokienez, **FITOSANITARIOAK** %92,5 izan dira. Nabarmentzen dira **hainbat fitosanitarioen** presentziagatiko jakinarazpenak (%48,5). **Piperrek, arrozak, babarrun berdeek eta landare aromatikoek** beste fruta eta barazki batzuek baino jakinarazpen gehiago dituzte. Gehienak **ASIako HERRIALDEETatik** datoz.

Sarearen bidez jakinarazitako **iruzur** guztietatik, % 40,5 **debekatutako substantziengatik** izan dira edo **baimendu gabeko osagai berriak** hainbat elikagaitan. **ELIKAGAIEN OSAGARRIAK** nabarmentzen dira kasuen % 65,5ekin.

Bestalde, %25 **ETIKETAN ALERGENOAK EZ DEKLARATZEARI** dagozkie.

